

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioaren 30. urteurreneko ospakizunean parte hartu du

*Baluarten egindako ekitaldian, erakunde horiek Nafarroako tokiko maparen erreforman izan behar duten parte-hartzea defendatu du*

Viernes, 04 de mayo de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Baluarte Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioan izan da gaur arratsaldean Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioaren (FNMC) hogeita hamargarren urteurreneko ospakizunean parte hartzeko; bertan, erakunde horiek Foru Komunitatearen tokiko maparen erreforman izan behar duten parte-hartzea defendatu du.



Yolanda Barcina, Fernando Martínez eta Mariano Herrero-rekin.

Barcinak bere agerraldian ohartarazi duenez, "etorkizuneko Nafarroa gu geuk diseinatzen ez badugu, beste batzuk egingo dute". "Izan gaitezen, beraz, gu tokiko mapa berria marraztuko dutenak; ziur hobeto egingo dugula, eta ez dezagun egin Federazio honi bizkarra emanaz, ez dezagun akats hori egin, federazio horrek zeresan handia baitu arlo horretan. Ziurtatzen dizuet Nafarroako Gobernuak zuek horri buruz esateko duzuen adi entzungo duela eta zuen parte-hartzea kontuan hartuko duela gehiago atzeratu ezin daitekeen prozesu batean", adierazi du.

Bertaratutako udal-ordezkarien aurrean, Yolanda Barcinak aipatu du "helburua, edozein kasutan, arrazionalizazioa dela herritarrei zerbitzu hobek emateko, haien eskubideen berdintasuna aitortzeko edozein lekutan bizita ere, aztertzeaz eta akordioak lortzeaz gain".

"Ospakizunean esku hartu dute ere: Espainiako Udalerrri eta Probintzien Federazioaren (FEMP) lehendakariorde eta Zamorako Diputazioko lehendakari Fernando Martínez-ek eta FNMCren lehendakari Mariano Herrero. Gainera, bertan izan dira ere, Parlamentuko lehendakari Alberto Catalán, Foru Komunitateko Gobernuak ordezkarik Carmen Alba eta Iruñeko alkate Enrique Maya."

Ekitaldiaren aurretik, Barcina Lehendakariak Nafarroako Jauregiko bulegoan FEMP eta FNMCko ordezkarik hartu ditu, Martínez eta Herrero, hurrenez hurren.

Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioa Foru Komunitatearen tokiko erakundeez osatutako elkartea da, eta beren borondatez erabakitzen dute bertan sartzea beren interes komunak babestu eta sustatzeko eta, bereziki, tokiko autonomia babesteko. Gaur egun, haren barnean daude Nafarroako tokiko erakunde gehienak, bostehun baino gehiago.